




# «Neretzat sari haundiena litzateke, jendeak kontzientzia hartzea»

Gipuzkoako Urrezko Saria jasoko du Angel Olan misiolari hernaniarrak, datorren ostegunean, Diputazioan, Etiopian, Wukron, egindako lanagatik.

ANGEL Olan hernaniarrak jasoko du Gipuzkoako Urrezko Domina, datorren ostegunean Gipuzkoako Diputazioan. Etiopiako Wukro herrian misiolari 18 urte daramazki Olanek, eta hango egoera aldatzen egindako lanagatik emango zaio saria datorren ostegunean. Wukron 7 proiektu ditu Angel Olanek eta berriak hasteko ilusioz dago. Saria jasotzeak poz eman dio, eta adierazi du, bere lanean ari diren guztientzat balitz bezala hartuko duela. /4-6



## Legalizazioa eskatu zuten Ezker Abertzalearentzat

EZKER Abertzalearentzat legalizazioa eskatu zuten atzo ehundaka hernaniarrak, Plaza Berritik abiatu eta Hernaniko kaleetan barrena. Plaza Berritik Zinkoenara, eta handik Kale Nagusian gora, Gudarien plazan bukatu zuten giza katea. Festa giroan, «orain! legalizazioa» eskatu zuten batean egin zuten ibilbidea, eta bueltaka-bueltaka... osatu zuten borobila, giza-espinala, Plazan, pankartak goian zituztela. ||

### ◆ ERRUGBIA

#### Partidu gogorra, gaur Landaren

Hernanik Landaren jokatu du gaur, BUC Bartzelona taldearen kontra. Partidu serioa espero da, igoera fasean sartzeko garrantzi izugarria duelako. 12:00etan. /3

### ◆ ERREMONTA

#### Galarretan izar berri bat: Urriza!

Urrizak eta Etxeberria IIIak errez irabazi dute Binakako Txapelketa Nagusia, atzo, Galarretan, Zeberio Ila eta Ionen kontra. /3

### GAUR KRONIKAN

LABURRAK /2

Prentsa oharra: Hamaikabat alderdia. /2

Gabonetako kontzertuak: txistu kontzertua gaur /2

Fubola: Hernanik enpate /3

KIROLAK: Ehiza, arrauna, atletismoa, judoa. /3

Lizeaga auzoa /8

Eskelak /8

kamisetak, arropa, bitxiak...  
gabonetan goiz eta arratsalde irekiko dugu

**aiko maiko**  
www.aiko-maiko.com karmelo labaka, 4 - hernani

**Kongelatuak  
JAIONE**

Gabonetan enkarguz:  
- Angula izoztuak  
- Ostra freskoak

Oparitarako delicatessen saskiak  
prestatzen ditugu.

Eguberri On guztioi!  
*Productu freskoak  
eta Delikatessen*

ELKANO KALEA 1 - TEL.: 943 55 07 87

**ARRI**  
taberna

Pizzak eta  
Pasta freskoak

Etxera eramateko  
prestatzen ditugu

943 33 34 37

Bidebieta plaza 2 (Antziola berrin)

Yola eta Jorge  
**GABONETAKO  
PLATER BEREZIAK**

✓ Goizetik gauera arte irekita  
✓ Menu bereziak nahi izanez  
gero, egiguzu kontsulta

ZORIONAK  
ETA EGUBERRI ON!

Erreserba ezazu lagun  
arteko bazkaria

❖ GABONAK - KONTZERTUAK

# Eguberri atarian, txistu kontzertua

Kontzertuak izango dira Hernanin, eguberri atarian. Hernaniko txistulariek eta gitarra-joleak kontzertua emango dute gaur, 13:00etan, Milagrosan. Kantuz abesbatzak kontzertu sakroa, bihar, 20:00etan.

TXISTUA eta gitarra batera, *auzolanean*, entzun ahal izango dira gaur, 13:00etatik aurrera, Milagrosan. Urtero ohi bezala, Hernaniko txistulariek 8 kanta joko dituzte, eguberri hasiera honetan; aurten laguntzaile eta guzti, gitarra jolea izango baitute. Patxi Apezetxeak zuzenduko du kontzertua.

**Kontzertuak lau egunetan**

Gabon garaia kontzertu garaia izaten da eta aurten ere badira kontzertuak, eginak eta egiteko. Atzo, Musika Bandak eta Ozenki abesbatzak ia bi orduz adi-adi eduki zuten Milagrosa bete jende. 13 kanta kantatu zituzten.



Musika Banda eta Ozenki abesbatza, atzo Milagrosan.

Bihar, Kantuz abesbatzak eta Astigarragako abesbatzak kontzertu sakroa emango dute, 20:00etan, San Joan Ba-taiatzailea elizan. ||

**EGITARUA**

- 1- Juana Bixenta Olabe.  
*Armonia: J.I. Ansorena*
- 2- Agustin, Shanti eta Juan Joxe.  
*I. Ansorena*
- 3- Alpeetako oroimena.  
*J. Labitsky*
- 4- Gabon abestiak.  
*Arm. I. Ansorena*
- 5- Erregeak datoz.  
*Herrikoia*
- 6- Ai, hau gabaren.  
*Arm. J. Hdez. Arsuaga*
- 7- Aingeruetazko soinua.  
*L. Ondarra*
- 8- White Christmas.  
*Irvine Berlin*

Zuzendaria: Patxi Apezetxea

❖ HAMAİKABAT

## «898.000 €-ko defizita izango du Atez Atekoak»

HAMAİKABAT alderdiak Kronikara bidalitako prentsa oharrean dioenez, datorren urtean, Hernanik 898.000 euroko defizita izango du. Ogasun Batzordea izan zen joan den astean, eta Gobernu Taldeak 2011ko presupuestoak aurkeztu zituen (Kronikak ez du aukerarik izan aurrekontu horiek lortzeko).

Hamaikabat alderdiak

adierazi du, aurrekontu horiei begiratuta, izugarri igo dela hondakinak biltzeko gastua. «2009ko datuak hartu ditugu, aurreko sistemarekin zenbat gastatzen genuen ikusteko, eta 2011n %60 gehiago gastatuko dugu. 2009an 1.090.000 euro gastatu ziren; 2011n 1.713.000 euro gastatuko dira. Diru sarrera gisa berriz, herri-tarrek ordaintzen duten tase-

tan, 814.500 euro jasoko dira, beraz, defizita, 898.000 eurokoa da. Lehen, 297.500 eurokoa zen».

**866.000 euroko kreditua**

Iñaki Arratibel Hamaikabat alderdiko bozeramaileak dio, 2011n Udalak 866.000 euroko kreditua eskatu duela, eta Atez Atekoaren defizitik izan ez balitz, ia ez zela eskatu beharrik

ere izango. «Krediturik ia ez genuen eskatu beharrik izango, eta inbertsioetan diru gehiago gastatu ahal izango genuen».

Arratibelek dioenez, 2009-an herritarrek ordaintzen zizuten tasek %72 kubritzen zuten sistemaren gastua; gaur egun berriz, tasa horiekin ez da kubritzen %50 ere. «Denok ordaindu beharko dugu, Atez Atekoaren ruina hau». ||

❖ SANTO TOMAS

### Txistorra, Portun eta Sorgintxulon, gaur

Santo Tomas eguna ospatuko da aurten ere Hernanin, eta txistorra gosez dagoenak izango du non probatu, Donostiara joan gabe. Gaur Sorgintxulon eta Portun 12:00etan hasiko dute festa. Txistorra jana egingo dute, eta bi auzoetan saskia zozketatuko da. ||

❖ OSIÑAGA

### Musa, Otsuenean

Osiñagako Mus Txapelketa jokatu dute gaur, Otsuenean, arratsaldeko 16:00etatik aurrera. Hasi eta buka gaur egingo dute. Inskripzioa 20 euro. ||

❖ MOZTU FILMAK

### 'Amaren bidai' filma estrenatuko da gaur

Donostiako Aquariumean pelikula aurre-estrenatuko du gaur Moztu Filmak-ek: *Amaren ideia*, 11:30etan. Irekia da. ||

❖ NABARRALDE

### Gipuzkoa jaio zen: 1376 urtean

Nabarralde bideo bat aurkeztuko du, Gipuzkoako jatorria izeneko, bihar, 19:30etan Biterin. «Gipuzkoak, 1376 arte, hiru lurralde zituen, eta horietako bat, Hernani; Oriatik Bidasoaraino zijoana. Beste bi zatiak ziren: Aitzorrotz eta Ipuzkoa...». ||

**Amegar**  
otxo tresnak - aitzariak

**Eguberri On guztioi!**

**Punta-puntako markak**

Hotzgailuak  
Izotz-gailuak  
Labeak  
Garbigailuak

Txirrita kalea, 13-15  
Tel.: 943 55 11 25  
Faxa: 943 55 16 03

**Caizea**  
laboreak

Kontsegi  
Mentzeria

**Eguberri On guztioi!**

Kardaberaz, 2  
TIF-943 55 55 19

**MASUSTA EKODENDA**

PRODUKTU NATURALAK  
MASUSTA

Elikagai Biologikoak  
Barazki eta Fruta Ekologikoak  
Senda Belarrak  
Kosmetika Naturala  
Liburuak...

**EGUBERRI ON!!**

KARDABERAZ, 43  
943 55 57 10

**Keunka®**  
MUEBLE RUSTICO

OUTLET EXPOSIZIO BERRIA

**ZATOZ !!**

TRANSPORTES OCHOA  
RIO URUMEA  
BIGMAT ARIGETA  
AMR REFRACTARIOS  
ASTIGARRAGA DONOSTIA  
GASOLINERA KARABEL

**MUNDU GUZTIKO ALTZARIAK DENA KOSTU PREZIOAN !!**

**OUTLET !!**

**ALTZARIAK ETA ARGITARIAK AURREKO DENBORALDIETAKO "Stock"-a**

**ORDUTEGIA**  
Ast.-Ost.  
09:00-13:00  
15:30-19:00  
Larunbata  
09:00-13:00  
15:30-20:00

ZINKO ENEA HERNANI  
CAMPO FUTBOL ZUBIPE

**OUTLET !!**

Pol.Ind. ZUBIONDO - NAVE 4B-1 (20120, HERNANI). Tel: 943 33 10 81

**www.keunka.com**

◆ **ERRUGBIA - Ohorezko B maila**

# Irabazi beharra, urtea ondo bukatzeko

Hernanik Landaren jokatu du gaur, 12:00etatik aurrera, BUC Bartzelona taldearen kontra.

URTEA bukatzeko azken partidua irabazi beharra dauka Hernanik, Ohorezko B mailan. Hernaniarrak ez dute ondo hasi denboraldia, baina badirudi hobeto jokatzen ari direla azken partiduetan.

Igoera play offa aurrenak eta bigarrenak jokatzen dute, eta Hernani 8 puntura dago,

5garren postuan. Gaur BUC Bartzelona taldea izango du aurrean, iaz oso goian ibili zen taldea, aurten pattalago dabilena. Joaneko partiduan enpatatu egin zuten; gaur enpateak ez du balio.

Aurrean du indarra BUC Bartzelonak; Hernanik bere jokua egiten asmatu behar du.

**Bi baja nagusi, gaurko partidurako**  
23 jokalarik konbokatuta ditu Hernanik gaurko partidurako, eta bi baja nabarmen izango ditu: Joe Goiti eta Ramuntxo Labat. Herritarren animoak estimatuko dituzte Landaren, gaur, 12:00etatik aurrera. ||

**SAILKAPENA**

1-Getxo R.T.	38
2-Univers. Vigo R.C.	31
3-Oviedo R.C.	30
4-F.C. Barcelona	29
<b>5-Hernani C.R.E.</b>	<b>23</b>
6-Durango R.T.	12
7-B.U.C. de Barcelona	10
8-Urbealde R.T.	4

◆ **ERREMONTA - Azysa Binakako Txapelketa Nagusia**

## Etxeberria III eta Urriza, txapelak

Denean nagusitu ziren atzo naparrak. Etxeberria izan zen lauetan onena, eta Urrizak ratxa bildurgarriari eutsi dio: lau urte, lau txapel.

ZEBERIO IIak ez zuen arriskatu; Etxeberria IIIak dena eramane zuen. Urrizak bizi ibili zuen pelota; Ionek behartuta jokatu zuen. Misterio gehiago ez zuen izan atzoko final haundiak, erremonteko Binakako Txapelketa Nagusiak, Azysa Torneoak.

Urriza eta Etxeberria IIIa dira txapelak berriak, txapelketan jokatutako 5 partiduetan irabazita. Atzo 40-31 nagusitu ziren naparrak, giputzen kontra. Etxeberriak 37 urte ditu, eta lehenengo txapela lortu zuen atzo; pozez gainezka zen. Urrizak 27 urte ditu; eta 4 urte profesionaletan, lau final, eta lau txapel. Izar berri bat jai da Galarretan. ||



Urriza eta Etxeberria IIIa, txapelak buruan.

◆ **FUTBOLA**

## Azkenean, enpatea

GALDUZ gero, lidertza galduko zuen; irabaziz gero mantendu. Azkenean, Hernanik enpatatu egin zuen atzo 1-1, eta aurren-bigarrenak hor geratu dira, Pasaia taldearen emaitzaren zain.

**0-1 galtzen hasita**

Enpatea bigarren zatiko 12garren minutuan iritsi zen. Anaitasuna zijoan aurretik, eta Eneko Iñurrategik sartu zuen enpateko gola. Partidu oso ona izan zen atzokoa, kalitate haundikoa, eta oso serioa. Seguritatearekin jokatzen zuen Hernanik eta zaleak oso gustora ziren partidu bukaeran. Hurrengo partidua ostiralean jokatuko du Real Unionen kontra, Irunen. ||

◆ **EHIZA TXAPELKETA**

### Bigarren txanda, ehiztari onentzat

Txantxangorriko Ehiza Txapelketa gaur bukatuko da. Goizeko 09:00etatik aurrera, eta bigarren igandez, Epelerreka eta Usokoerrekan neurtuko dituzte abilitadeak elkarteko ehiztari finenek. Ramon Izagirre dijoa oraingoz aurrena. ||

◆ **ARRAUNA**

### Hernaniko batelak Donostian gaur

Hernaniko batel guztiak Donostiako estropadan dira gaur, 12:00etatik aurrera, Loiolako Erribera pasealeku parean. ||

◆ **SALILLAS**

### 200 km korrika, 24 ordutan

Xabier Salillas CD Hernaniko ultramaratonianoa bere proba gogorrena jokatzen ari da, Bartzelonan, atzo eta gaur bitartean. 400 metroko pistari 500 buelta eman behar dizkio, eta 24 ordu ditu horretarako. ||

◆ **JUDDA**

### Gipuzkoako infantil txapelketa Hernanin

Goizeko 09:30etatik aurrera, Gipuzkoako infantil mailan neurtuko dira gaur, Hernanin, taldeka eta bakarka. Ondoren alebinek erakustaldia dute, 11:00etan. ||




Ostegunetan egiten ari garen bigarren zozketan saritua

## MARKOS TREJO

izan zen eta ostiralean jaso zuen Raul eta Lourdesen eskutik irabazitako Roomba aspiragailu robota.

**cenor BALANTXA**  
ELEKTROGAILUAK  
Nagusia, 17 - ☎ 943 33 20 44



## A B E N D U A N

ROOMBA aspiragailu robot bat zozketatuko dugu ASTERO:

BALANTXAN EROSKETA egiten dutenen artean, eta KIXKAL eta AKEIT tabernetan KAFAEA hartzen dutenen artean



**Gipuzkoako** Urrezko Domina 2010 Saria emango diote abenduaren 23an Angel Olaran misiolari hernaniarrari. 1938an Hernanin jaioa, 40 urte daramazki misiolari lanetan. Hasierako 20 urteak Tanzanian pasa zituen eta ondoren, Etiopiako Wukro herrira joan

zen lanera. Egun, zazpi proiektu ditu martxan, eta Kronikari adierazi dionez, pixkanaka, baina ari dira emaitzak lortzen, «bide onetik goaz». 40 urte luze horietan egindako lanagatik omenduko du Angel Olaran Diputazioak, ostegunean.

## ANGEL OLARAN MISIOLARIA - GIPUZKOAKO URREZKO DOMINA 2010:


# «Gizartean klase borrokarik ez izateko, nekazaritzatik egin behar da garapena»

**Diputazioak urrezko domina emango dizu ostegunean, hamar-kada guzti hauetan Etiopian egindako lanagatik. Errekonozimendu gisa hartzen al duzu?**

Berria jaso nuenean harritu egin nintzen. Nonbaitera laguntzera joaten zarenean, beraiek hartu egiten zaituzte eta zuk lagundu egiten duzu. Oso naturala da, erraza eta berezkoa. Egiten dena oso gizatiarra da, eta horregatik sari bat jasotzea, ez dakit... Normalean sariak ez-ohizko gauzei ematen zaizkie. Gipuzkoan esaterako, filosofo, iker-tzaile, zientzilaria... asko daude, beraien eguneroko lanarekin Gipuzkoa mundu osoan eza-gutarazten dutenak. Horregatik, harritu egin ninduen gisa honetako zerbitzu xume bati saria emateak. Hala ere estimatzekoa da. Nik ez dut nere lanaren errekonozimendu bezala hartu, horretan lanean ari garen guztion errekonozimendu edo sari bezala baizik, eta eskertzen dut.

**Domina edo errekonozimendu honek etorkizunari begira, lagunduko al du Etiopiako egoera, zure lana, guztion egin-beharrak bultzatzen?**

Triste da horrelako sari baten zain egon beharra jendea kontzientziatzeko. Guz-



Angel Olaran Hernanin dago, eta abendu amaieran itzuliko da Wukrora.

tiok dakigu ekonomia globalaren ondorioz, urtean 37.000.000 pertsona ari direla hiltzen alimentazio txarrak eraginda, 100.000 pertsona

inguru egunean. Hala ere, domina honek egoera aldatzen lagunduko badu, ongi-eterria izango da... Norbaitek esan zuen bezala, Jainkoak

lerro okertuak idazten ditu.

**Zein da Olaranek jaso dezake-en sari haundiena?**

Jendea kontzientziatzea.

Urtean miloika pertsona hiltzen direla esaten dudanean, ez naiz ari mezu bat zabaldu nahian, gertaera objetibo bat kontatzen ari naiz.

**biokbi optika** **HOBETO IKUSIZ HOBETO BIZI**  
Antziola, 14 - Tel.: 943 33 68 86

Alejandra Alcibar  
Optiko Optometrista, 12.244 zkia.  
R.P.S. 174/06

Gabon zoriontsuak opa dizkizuegu.  
**Eguberri On guztioi!**

Antziola, 14 - Tel.: 943 33 68 86

**KE** **Zorionak eta Eguberri On guztioi!!**  
Plaza Berri



## ONGINTZA UDAL PATRONATUA - Datorren urteko apustua

# Lau erronka ditu eskuartean Ongintzak

Udalak Zaharren Egoitza berria beregain hartu eta martxan jarriko duela jakinarazi du aste honetan, berez Diputazioaren kompetentzia izan arren. Erabakiaren nondik-norakoaz galdetu dio Hernaniko Kronikak Izaskun Ezeiza Ongintzako Lehendakariari. Horrez gain, Ongintzaren erronka eta lor-

penez ere aritu da: Eguneko Zentrua eta Etxez Etxeko zerbitzua indartzea eta Zaharren Egoitza berria eta apartamentu tutelatuak martxan jartzea. Ongintzak adinekoei zuzendutako zerbitzu mordoa eskaintzen du, baita Bidez Bide furgoneta zerbitzua ere. Guztiak biltzen ditu erreportaje berezi honek.

Antziola 9  
Tel. 943 33 02 89

**arrosak**  
edergintza

Gabon zoriontsuak opa dizkizuegu!!

**Ilargi**

kardaberaz. 7  
943 55 34 65

Gabon zoriontsuak opa dizkizuegu!

apaindura  
**OIHALA**  
hogar

Zorionak eta Eguberri On!!

Euskal eta baserritar jantzi tradizionaletan aukera zabala.

Elkano kalea, 11  
HERNANI

Gobernu Taldeak aurkeztutako 2011ko aurrekontu proposamenean, Ongintza arloa da apustu nagusienetakoa. Hala, bideratuko lirake Zaharren Egoitza berria eta apartamendu tutela-

tuak martxan jartzea, eta orain arteko zerbitzuak mantentzeaz gain, hobetzea, Izaskun Ezeiza Ongintzako lehendakariak azaldutakoaren arabera. Aurrekontuak zuzenketa fasean daude.

## Udalak bere gain hartuko ditu Zaharren Egoitza berriko gastuak eta ireki egingo du

ZAHARREN Egoitza berria martxan jarriko du Udalak, gastuak bere gain hartuta. Hala jakinarazi zuen joan den astelehenean. Edifizio berria martxoan bukatu zen eta ordutik Diputazioaren zain egon dira behar bezala ekipatu eta martxan jarri zezan; bere konpetentzia baita. Diputazioak ezer egiten ez zuela ikusita, Udalak ardura hartzea erabaki du, berriz ere. Obren gastuen %33,23 ere bere gain hartu baitzuen.

Gobernu Taldeak 2011ko aurrekontu proposamena aurkeztu zuen astelehenean Ogasun Batzordean, eta bertan argi utzi dute Ongintza arloa dela apustu nagusienetakoa. Bertara bideratutako dirua ez du murriztuko, bestelako hainbat gastu gutxitu dituen arren, eta horrek ahalbidetuko du, martxan jartzea Zaharren Egoitza berria eta Udalarenak diren 12 apartamendu tutelatu, Izaskun Ezeiza Ongintzako Lehendakariaren esanetan. Eta horrez gain, martxan dauden beste zerbitzu batzuk hobetzea: «Etxez Etxeko laguntzan, esaterako, 2011 urtean, ordu



Zaharren Egoitza berriko gela bat ikusi daiteke irudian. Kasu honetan, bi pertsonentzako gela izango da. Ekipamendua falta du oraindik.

kopuru gehiago emango ditugu; gutxigorabehera orain arte eskaintzen ditugunak baino 400 ordu gehiago urtean. Eta Eguneko Zentruko zerbitzua ere indartu egingo dugu. Lehen, eraikin zaharrean 30 pertsona genituen, 2010ean 43ra igo ditugu eta 2011n 49 izango dira. Eguneko Zentruko plazak hitzartuta izan dira

Diputazioarekin, beraz, bere aportazioa egingo du».

Aurrekontu proposamena zuzenketa fasean dago orain. Alderdiak zuzenketa egiteko epea izango dute urtarrilaren 5era arte. Ongintzaren kasuan, abenduaren 30era arte. Ondoren, Plenotik pasako da onartu edo ez erabakitze eta onartzen bada, zein zuzenketein.

**Eraikin berria, egoiliarrek merezi duten ordaina**

Zaharren Egoitza egokitzeko obrak eta eraikin berria egitea Diputazioak derrigortu zuen, berak ezarritako baldintzak betetzen ez zirela eta. Hala azaldu du Ezeizak: «Edifizio zaharrean 3ko gelak zeuden eta legeak ez du uzten. Horrez gain dio, banakakoak izan

behar dutela %25». Eraikin berriko 6 pisuetatik goiko 3ak Zaharren Egoitzakoak izango dira eta guztira 36 gela daude; 12na pisu bakoitzean. Gelak banakakoak eta bikoak izango dira. Haundiak eta argitsuak, batzuk balkoiarekin, terraza goiko pisuan, lehenengoan psikogeriatria...

Pertsona kopurua mantendu egingo da. Orain arte bezala 111 izango dira. «Eraikin berria egiteko eraikin zaharra egokitu egin da eta egoiliarrek obra eta eragozpen guztiak jasan behar izan dituzte. Horren aurrean izan duten jarrera ona eskertu nahi diegu. Eta iruditzen zaigu kalteen ordaina izango dela eraikin berria. Bizi kalitate askoz hobea izango dute eta merezi dute. Horregatik plaza berdina izango dira, beraiek izatea nahi dugulako», azpimarratu du Ezeizak.

Apartamendu tutelatuak 0 pisuan egongo dira. Eguneko Zentrua eta bi etxebizitza sozial -1 pisuan eta -2 pisuan beste hiru etxebizitza sozial eta instalazioak. Zaharren Egoitzako eta Eguneko Zentruko bi eraikinak konektatuta daude. ■

### MAITE IRIBARREN - estetika zentrua

**ZERBITZUAK:** Prezio pertsonalizatuak

**GORPUTZEKOA:**

- ANTIZELULITIKOAK
- REAFIRMANTEAK
- DESINTOXIKANTEAK
- LAGUNTZA EDO DEFIZIT NUTRIZIONALAK TESTATZEN DIRA
- PRESOTERAPIA
- VACUMTERAPIA
- ENBOLTURAK: "C" bitamina, Algak, "Barros del Mar Muerto"

**AURPEGIKOA:**

- MOTA GUZTIAKOTAKO TRATAMENDUAK
- IONIO, LIFT...
- RADIOFREKUENTZIA

**DEPILAZIOA:**

- ARGIZARIA (CERA)
- ELEKTRIKOA
- LASER DIODO

Gabonetan: Edertasuna oparitu !!

Gabonetan: Osasuna oparitu !!

Zatoz eta galdetu !!

- MASAJE TERAPEUTIKOA

- RADIOFREKUENTZIA

- KINESIOLOGIA

URBIETA KALEA, 7 - 6C

Natura Bissé: Zu eta zure azala zainduz.

TFNOA: 943 55 39 48



**ASTELEHENA**  
09:00-14:30

**OSTIRALA**  
09:00-18:30

**ASTEARTIK**  
09:00-12:30

**OSTEGUNERA**  
09:00-12:30

**LARUNBATA**  
08:00-13:30

**15:30-19:00**

**GABONETAKO OPARI EZINHOBEA !!**  
**MERKATUKO PLANTXA ONENAK !!**

PASADA BATEAN LIXATU EDO KIZKURTZEN DUTE, ILEA ERRESPETATUZ.

ghd



DISEINUTAN AUKERA ZABALA

ZATOZ ETA PROBATU KONPROMEZURIK GABE !!


NAFAR KALEA, 16 - 943 57 99 76.

UXUE LEGARRETA: 697 60 59 66.

**OPEL**  
Auto Hernani  
HERNANIN, ZURE BETIKO TAILERRA.

JAUREGI, 76 - 943 55 77 25

### KONPONKETAK: MEKANIKA ETA KARROZERIA



FILTRO ETA OLIO ALDAKETA

**59€**-TIK AURRERA !!

GURPILEN ALDAKETA / AUTO-SALMENTA: BERRIAK eta 2.ESKUKOAK

**Txapan eta Pinturan:**  
GURE ESKURIK ONENAK, BETI PREST !!  
...ZURE AUTOAK MEREZI DUELAKO.

## IZASKUN EZEIZA - Ongintzako Lehendakaria

# «Datorren urtean, zerbait potoloan inbertituko badugu, argi daukagu Ongintzan izango dela»

Udalak Zaharren Egoitza berria martxan jarriko duela eta, erabaki horri buruz galde-tu dio Hernaniko Kronikak Izasun Ezeiza Ongintzako Lehendakariari eta Gobernu Talde honek Ongintzan egindako lorpenei buruz ere bai. Berak argi du: Eguneko Zentrua eta Etxez Etxeko zerbitzua indartzea eta Zaharren Egoitza berria eta apartamentu tutelatuak martxan jartzea.



Izaskun Ezeiza Ongintzako Lehendakaria.

Aste honetan jakin dugu Udalak beregain hartu eta martxan jarriko duela Zaharren Egoitza berria. Nola iritsi da Udala erabaki hori hartzera?

Zaharren Egoitza zerbitzua 2001etik Diputazioaren eskumena da, Eguneko Zentrua bezala. Bigarren mailako zerbitzu guztiak dira bere eskumena, eta Udalenak lehenengo mailakoak, Etxez Etxeko zerbitzua, etxe sozialak eta apartamentu tutelatuak diren bezala. Diputazioak, ordea, ez du beregain hartu. Eta Hernanin bezala beste 16 herri-

tan gertatzen da hori. Gu 2009ko maiatzetik harremanetan gaude Diputazioarekin, akordio baten zain.

Eraikin berriari dagokionean, guk ikusten genuen esfortzu handia izan zela eraikin berria egitea eta martxan jarri behar genuela, nahiz eta kostua izango duela badakigun. Eraikina irekitzea ez da irekitzea bakarrik. Gastu arruntak igo egingo zaizkigu. Eraikin bat mantentzea edo bi ez da berdina. Eta irekitzen bada,

betirako da, gastu horiek fin-koak izango dira.

**Gobernu Taldeak erabaki du datorren urteko aurrekontuetan Ongintzari dagokion zatia mantentzea eta horrekin bideratuko litzateke Zaharren Egoitza berria martxan jartzea. Nola?**

Egin duguna da gastu arrunta oso kontrolpean eduki 2010 urte osoan. Eta lege aldaketaren ondorioz, egon da BEZaren aldaketa. Kasu batzuetan zena %16a, bihurtu da %18a, baina beste

«Gustatuko litzaiyuke gure aurrekontuak onartzea eta hala, Zaharren Egoitza berria baldintza egokietan irekitzea».

batzuetan %7a genuena, %4a da orain. Eta soziosanitario diren zerbitzu guztietan BEZa ez da kontenplazten. Beraz, horrek eragin du ditugun gastu haundi batzuetan kostua murriztea. Nahiz eta zerbitzua berdina izan kostua txikiagoa izan da. Horrek ahalbidetuko digu diru kopuru berdinarekin aurre egiteko aukera izatea beste gastu batzuei, zerbitzuak murriztu gabe. Are gehiago, gehitu egingo ditugu. 2011 urtean zerbait potoloan inbertituko badugu, argi daukagu Ongintzan izango dela.

**Noizko espero da martxan jartzea?**

Hori izango da aurrekontuen arabera, onartzen denaren arabera. Orain ikusi behar da beste alderdi politikoek zein zuzenketa proposatzen dituzten. Eta horren arabera erabakiko da Plenoan onartzea edo ez onartzea. Eta onartzen badira zein zuzenkete-kin bai eta zein zuzenkete-kin ez.

**Orduan, aurrekontuak onartu arte ezin esan daiteke ziur, Zaharren Egoitza irekiko dela?**

Ireki, irekiko da ziur. Gertatzen

dena da aurrekontuen arabera modu batera edo bestera irekiko dela. Aurrekontu hori ez balitz onartuko, minimo batzuekin irekiko genuke. Nolabait, modua izango genuke gastu arruntei aurre egiteko, baina inbertsioak egiteko gaitasunik ez genuke izango. Eta gustatuko litzaiyuke gure aurrekontuak onartzea eta horren ondorioz beharrezko egokitzapenak ondo egitea eta baldintza egokietan irekitzea. Aukera badaukagu.

**Zer behar du funtzionatzen hasteko? Zenbateko gastuaz hitz egingen ari gara?**

Kortinak, bainugelako konplementoak, mahaiak, aulkiak, salatan telebistak... azkeneko gauzak dira, baina kostua dute. Gutxigorabehera 132.000 euro dira.

**Hori Zaharren Egoitzari dagokionean, baina eraikin berrian Eguneko Zentrua ere badago, Diputazioaren kompetentzia dena, eta hori martxan dago. Nolatan?**

Kasu honetan beharra sortu zen Diputazioaren aldetik. Argi Berria Antiguon dagoen Eguneko Zentrua itxi egin zuten Diputazioaren baldintzak ez zituelako betetzen eta hor zituzten egoiliarak berkolokatu egin behar izan zituzten. Horietatik 13 Hernanikoak ziren eta ikusi zuten ez hemen, eraikin berria bukatzeaz zegoela, ate joka etorri zitzaizkigun. Guk esan ge-

## AURTENGO GABONETAN OPARITU BIDAIAK



<b>MAR HOTEL 3*** (COMILLAS)</b> Gau 1, gosaria barne + afaria + bonboiak eta kaba	<b>53<sup>55</sup>€</b>
<b>HOTEL ISLA BELLA 3*** (ISLA)</b> 2 gau, gosaria barne + termo-ludiko zirkuitoa	<b>70<sup>70</sup>€</b>
<b>HOTEL VIURA 4**** (VILLANUEVA DE ALAVA)</b> Gau bat, gosaria barne + bisita eta bazkaria bodegan	<b>125<sup>00</sup>€</b>
<b>TUNEZ</b> Otsailean, hegaldia Bilbotik. 7 gau, Htl. 5****, MP.	<b>264<sup>00</sup>€</b>
<b>LANZAROTE</b> Urtarrilean, hegaldia Bilbotik. 7 gau, Htl. 4****, MP.	<b>360<sup>00</sup>€</b>
<b>MEDITERRANEOKO KRUZEROA</b> Martxoaren 6an, Bartzelonatik, 7 gau, PC.	<b>439<sup>00</sup>€</b>
<b>EGIPTO</b> Urtarrilean, hegaldia Madriletik. Kruzeroa, 3 gau, PC + Kairo, 4 gau, AD.	<b>599<sup>00</sup>€</b>

OPARI GEHIAGO ERE  
BADITUGU

**vip kofreak**

NEKAZAL ASTEBURUA,  
ZEN EGONALDIA,  
BI LAGUNENTZAT SPA...

**39<sup>00</sup>€TIK AURRERA**

**Kontsulta itzazu  
aukera guztiak!**

## GABONETAKO ZOZKETA

Ekarri zuen marrazkiak gure bulegora eta parte hartu PORT-AVENTURA joateko egingo dugun zozketan  
ZOZKETA EGUNA: URTARRILAREN 4a GURE BULEGOAN, ARRATSALDEKO SEIETAN.

**BALDINTZAK:**  
Gaia: "BIDAIK"  
Adina: 4-11 URTE  
EPEA: urtarrilaren 4a

**SARIA:**  
Apirilaren 25etik maiatzaren 1era  
Port-Aventuran 6 eguneko egonaldia, pentsio osoan  
2 heldu eta 2 umeentzako + 2 egunetako sarrerak  
edo balloklidea

**HERNANI**  
BIDAIK  
Urbietan, 6  
943 33 00 49  
hernanib@teletel.es  
www.hernanibidaiak.com

**Eguberri On guztioi!!**



nuen hartuko genituela, baina Diputazioak beregain hartu behar zuela zegokion kompetentzia. Diputazioak kompetentzia onartzen zuela esan zuen eta 13 egoiliar horientzat zentrua ekipatzeaz gain, beraien gestioaz arduratuko zela. Baina konturatu ginen aplikatu nahi zutela euren katalogoa eta hori horrela, zerbitzuaren kalitatea asko jaitsiko zela. Beraz, azkenean erdibideko zerbait adostu genuen: ekipamenduaz Diputazioa arduratzea eta zerbitzuaren gestioaz gu. Eta negoziatzen jarraitzea erabaki genuen lortu arte beraiei dagozkien kompetentzia guztiak beraiek hartzea.

**Lehen 30 pertsona zeuden eta azken 13 horiekin, 43 daude orain. Eta datorren urterako espero dugu 6 gehiago sartzea.**

Bai gure helburua da 2011n 49 pertsona izatea Eguneko Zentruan. Azken 6 horiek guk proposatu ditugu eta Diputazioak beharrezko oniritzia eman digu. Leku aldetik, 60 pertsonentzako lekua dago orain, Eguneko Zentruan, baina gure asmoa 50 egoiliar izatea zen eta 49rekin oso pozik gaude. Hernani batentzat 49 egoiliarreko Eguneko Zentrua izatea oso potentea da.

**Eraikin berri horretan 12 apartamentu tutelatu eta 5 etxebizitza sozial ere badaude.**

Kasu horietan eskumen osoa Udalarena da eta helburua da 2011rako apartamentuak ekipatzea eta erabiltzeko prest egotea. Denak solairu berean daude eta guztiak batera martxan jartzea pentsatu dugu, hobe izango dela zatika egitea baino. 5 etxebizitzak momentuz ez ditugu ekipatuko. Udalak baditu beste etxebizitza sozial batzuk eta oraingoz beharra asetuta ikusten dugu.



Eguneko Zentruan eraikin zaharra ere egokitu dute. Irudian ariketak egiteko gela azaltzen da eraberrituta.

«Hernani batentzat 49 egoiliarreko Eguneko Zentrua izatea oso potentea da».

**Aipatutako zerbitzuez gain, Ongintzak zein zerbitzu eskaintzen ditu?**

Mila gauza. Oinarrizko gizarte zerbitzu guztiak, laguntza psikologikoa, laguntza ekonomikoa, famili ugariko txartela egitea, drogomenpekotasunaren teknikaria, Kontsumo Bulegoa, Goiz Eguzki jubilatu etxea, etxebizitza sozialak... Gizarte zerbitzua oso zabala da.

**Zenbat pertsona ari dira Ongintzan orokorrean? Eta Zaharren Egoitzan?**

Oso zaila da hori zehaztea. Hemen egunero egiten dira kontratuak. Hemen ordubete falta bazara, norbait jarri behar duzu ordezkatzeko, beraz plantilakoak bakarrik esatea ez da langile kopuru



Eraikin berrian dago Eguneko Zentruko jangela, Officearekin (sukaldea).

erreal. Zaharren Egoitzan esaterako, 76 lanpostu daude, baina ordezkapenak direla eta, 100 bihurtzen dira. Eta Ongintzan orokorrean, 180 bat langile ari dira lanean modu eta arlo ezberdinetan: langile finkoak, azpikontratuak, administraziokoak eta akordio edo hitzarmen bidezkoak daude.

Baina Hernani izango da ziu- rrenik lehen aipatutako 16 herri horien artetik langile zuzen

gehienez dituen herria. Eguneko Zentrua dena, azpikontrata bidez da eta Zaharren Egoitzako gaueko zerbitzua ere bai. Beste guztian langile zuzenak ari dira lanean.

**Amaitze aldera, zure ustez Gobernu Talde honek zer lorpen nagusi egin ditu Ongintzan?**

Lehen aipatutako horiek: Eguneko Zentruan 49 egoiliar izatea, Etxez Etxeko zerbitzua mantendu ez ezik ordu kopu-

## Eguneko Zentrua eta Etxez Etxeko zerbitzua, Ongintzaren zutabeak

“ Hernanin, Gizarte Zerbitzuen zutabeak dira Eguneko Zentrua eta Etxez Etxeko zerbitzua. Gure filosofiarekin bat egiten duten bi zerbitzu dira; izan ere, pertsonak beraien azken urteak beraien ingurunean ahalik eta ondoen egoteko aukera izan dezaten ahalbidetzen dute. Hori nahi dugu. Ahalik eta gehien luzatzea beraien ingurunean egoteko aukera. Eta hori lortuta, hurrengo pausoa eman behar badute eta Zaharren Egoitzara etorri, ahalik eta zerbitzurik onena emango diegu eta saiatuko gara euren etxean egongo balira bezala sentituz arazten. Baina bitartean Eguneko Zentruaren eta Etxez Etxeko zerbitzuaren bidez saiatuko gara pauso hori eman beharra luzatzen. ”

rua igotzea, krisi garaia izan arren, eta Zaharren Egoitza berria eta apartamentu tutelatuak martxan jartzea. Nire ustez ikaragarritzko lorpenak dira.

**Eta aurrera begira, zeintzuk dira eman beharreko pausak?**

Argi dago lanean jarraitu behar dugula eta Diputazioarekin negoziatzen, bakoitzak berari dagozkion kompetentziak hartu arte. Ez da bakarrik jakitea kompetentzia horiek zeintzuk diren, aurrera eramatea ere bada. Eta ez guk esaten dugulako, horrela delako baizik. ||

## ABENDUAREN 22an eta 23an OLENTZERO, BERRIAK ELKARTEKO DENDETAN IBILIKO DA AZKEN MOMENTUKO OPARIAK EROSTEN.

Ez galdu aukera, gutunean jarri ez dituzun opariak eskatzeko!

**Abenduak 22**

11:00etatik 13:00etara KAXKOA

**Abenduak 23**

11:00etatik 13:00etara ZENTROA,  
TXIRRITA, LATSUNBE, ANTZIOLA...

**EGUBERRI ON HERNANI!!**





Landa eremuan bizi diren adinduentzako furgoneta zerbitzua 1013 aldiz erabili dute aurten hernaniarrek, iaz baino 257 aldiz gehiago. Herritarrek zerbitzuarekin gustora eta pozik daudela ikusita, beste urte betez luzatu dute konbenioa Ongintzak eta Behemendik.

## Bidez Bide garraio zerbitzua:

# Urtetik urtera gehiago erabiltzen da enkarguak egiteko furgoneta zerbitzua

LANDA eremuan bizi diren 65 urtetik gorako pertsoneri eta mugikortasun arazo haundiak dituzten pertsoneri zuzenduta, Bidez Bide, enkarguak egiteko furgoneta zerbitzua dago 2008tik, eta urtetik urtera gehiago erabiltzen dela jakinarazi du Ongintza Udal Patronatuak. «Iaz, urte osoan 756 bidaiak egin ziren (egunero 3,3), aurten berriz, 2009ko irailetik 2010eko abuztura, 1013 bidaiak egin dira (egunero 4,5)». Urte osoko datuak biltzean jakinaraziko dituzte.

«Datuek argi uzten dute furgonetaren erabilera errota dagoela. Egunez egunera erabiltzaile gehiago daude eta erabiltzaileek maizago darabilte», gaineratu dute. Hori horrela, «landa eremuko herritarrek zerbitzuarekin gustora eta pozik daudela ikusita», 2011 urterako konbenio berria sinatuko dute Ongintza Patronatuak eta Behemendi Landa garapenerako elkarteak.

### Furgoneta gehien erabiltzen dutenak, Ereñotzuarrak

Erabiltzaileen jatorriari erreparatu, furgoneta gehien erabiltzen dutenak Ereñotzuko biztanleak dira (13 erabiltzaile), gero Ugaldetxokoak (6 erabiltzaile) eta Pagoaga eta Akarregi (4na erabiltzaile). Guztira 39 pertsonak erabiltzen dute zerbitzua. Eta egiten diren bidaien %62a Ereñotzuko erabiltzaileek egiten dute.



Begoña txoferra, hitzartutako orduan azaltzen da erabiltzaileak etxera bueltan eramateko, enkarguak egin ostean, Ereñotzura.

Erabiltzaileen jatorriari erreparatu, furgoneta gehien erabiltzen dutenak Ereñotzuko biztanleak dira (13 erabiltzaile), gero Ugaldetxokoak (6 erabiltzaile) eta Pagoaga eta Akarregi (4na erabiltzaile). Guztira 39 pertsonak erabiltzen dute.

Osteguna, feri eguna da furgoneta gehien erabiltzen den asteko eguna %33,4; eta astelehena gutxiena %12,8.

Erabilera, egunaren arabera ere ezberdina da. Osteguna, feri eguna da furgone-

ta gehien erabiltzen den asteko eguna %33,4; eta astelehena gutxiena %12,8.

### Zerbitzua astelehenetik ostiralera, goizetan

Bidez Bide zerbitzuarekin, mugikortasun arazo haundiak dituzten pertsoneri eta landa ingurumean bizi diren adineko pertsoneri aukerak eman nahi zaizkie beraien ez ohiko eginkizunak (medikura joan, erosketak egin...) beraien kabuz egin ditzaten. Horretarako, furgoneta egokitu baten zerbitzua eskaintzen da astelehenetik ostiralera, goizeko 08:00etatik eguerdiko 12:00etara. Erabiltzaileak bere herriko erdigunera jaisteko aukera

du eta etxerako buelta txoferrarekin adosteko aukera du.

### Funtzionamendu erraza

Bidez Bide furgoneta zerbitzuaren funtzionamendua oso erraza da. lehenik eta behin, Ongintza Patronatuak eman behar da izena eta eskaera onartzen badute, gidariaren mobilaren zenbakia emango zaio. Herrira joan behar duenean txoferrari deituko dio eta zita egingo dute. Komeni da egun bat edo bi lehenago deitzea, txoferrak bere egutegia antolatu dezan. Eguna zehaztuta, txoferra etxeko atarira joango da bila. Herrira eraman eta bertan enkarguak egin ondoren, txoferrak etxera eramango du berriz. Ongintzako telefono zenbakia: 943 55 78 54.

### Autonomia bultzatzea eta bazterketa saihestea, helburu

Zerbitzu honen helburuen artean, 6 dira Ongintzak eta Behemendik azpimarratzen dituztenak: erabiltzaileek autonomia gehiago lortzea; beren kabuz mugitzeko zailtasun haundiak dituztenei gizarte gorabeheretan gehiago parte hartzen lagundu; gizarte bazterketa saihestea; hiri eta landa eremuko harremanak eta loturak mantendu eta bultzatzea; pertsona ahal den neurrian bere ingurunean mantentzea; eta hirigunera hurbiltzeko zailtasunak saihestea. II

**UGALDE S.A.**  
SUKALDE ALTZARIAK  
K21

Eguberri On!!!

Lastaola industrialdea, 16. p  
20120 HERNANI (Gipuzkoa)  
Tel. 943 551 598  
Tel. eta Faxa 943 552 067  
Mugl. 630 033 080  
e-mail: ugaldesukalde@euskalnet.net  
www.ugaldesukaldeak.net

ezkati

Zorionak eta Eguberri On!!!

ileapaindegia

Iturregi, 4  
Hernani  
943 55 65 56  
Hartu ordua

**IZARRE JATETXEA**

Gabon jai zoriontsuak opa dizkizuegu!

Lastaola poligonoa - 943 55 06 40 - HERNANI (Gipuzkoa)

# Hernaniko adinduentzako baliabide mordoa eskaintzen du Ongintzak

Hernaniko Udalarentzat berebiziko garrantzia du adineko pertsonari ematen zaion zerbitzuak eta horretarako hainbat bitarteko eta baliabide jartzen ditu eskura; hala nola, Zaharren Egoitza, Eguneko Zentrua, Etxez Etxeko laguntza zerbitzua, jubilatutako etxea, aldi baterako bizilekua... Eta guztiak adinduentzako baliabide gidan aurkitu daitezke.

ONGINTZA Udal Patronatuak gizarte zerbitzu ugari eskaintzen ditu herritarrei zuzenduta eta horien artean, adineko pertsonari zuzendutakoak dira asko; izan ere, «Hernaniko Udalarentzat berebiziko garrantzia du pertsona adinduari ematen zaion zerbitzuak», dio Izaskun Ezeiza Ongintzako Lehendakariak. Eta zerbitzu horiek guztiak biltzen dituen baliabide gida sortu dute, «hernaniar guztiari zerbitzuak gaur gaurkoz zeintzuk diren argitzeko eta beharrezkoa den informazio eguneratu guztia eskura jartzeko».

Zerbitzu horiek garrantzitsuak izateaz gain, egoera eta behar berrietara egokitzen ari direla azaldu du Ezeizak eta hori dela eta, gauzak zertan diren argitzeko beharra ikusi dutela,

«azkenaldian dependentziari dagokionez adinekoen esparruan izan diren aldaketak kontuan izanda».

**Edozein zalantza argitzeko prest**  
